

**AKTA**

**HERRIGINTZA INFORMAZIO BATZORDEKO  
OHIKO BILKURA**

**TOKIA:** Udaletxeko bigarren solairuko batzar  
gela

**DATA:** 2025EKO URRIAREN 20A.

**HASIERA ORDUA:** 17:00

**BUKAERA ORDUA:** 17:49

**ACTA**

**SESIÓN ORDINARIA DE LA COMISIÓN IN-  
FORMATIVA DE CIUDANANÍA**

**LUGAR:** Sala de reuniones de la 2ª planta de la  
Casa Consistorial

**FECHA:** 20 DE OCTUBRE DE 2025.

**HORA DE INICIO:** 17:00

**HORA DE FINALIZACIÓN:** 17:49

**PARTE-HARTZAILEAK/ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA**  
PRESIDENTA

- Jessica Ruiz Pérez (PSE-EE)

**ZINEGOTZIAK**  
CONCEJALES

- Asier Perugorria Garcia (EAJ-PNV)
- Ane Abanzabalegi Areitio (EH Bildu)
- Carlos David Garcia (PP)
- Iker Txertudi Gaztelu (EAJ-PNV)
- Juan Antonio Bueno Moreno (EH Bildu)
- Jorge Varela Dorrio (HE)
- Nagore Lozano Zarandona (EH Bildu)
- Paule Sanchez Arieta-Araunabeña (EAJ-PNV)

**IDAZKARI AKZIDENTALA**  
SECRETARIO ACCIDENTAL  
**ORDEZKARIA**  
POR DELEGACION

- Asier Bikandi Elorriaga
- Amaia Aranaga Libano

Presidenteak hasiera eman dio bilerari, eta saio honetarako gai-zerrendan jasotako gaiak jorratzen hasi dira. Hauexek dira:

Iniciada la sesión por la Presidenta, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**1. Aurreko batzordeko aktaren irakurketa eta onarpena, bidezkoa balitz.**


Audioakta sistema informatikoaren aldaketa dela eta, arazo teknikoak egon dira aurreko batzordeetako bi aktak erabilgarri edukitzeko. Hori dela eta, ez da posible izan akta horiek eskuratzea batzordeko kideei. Ondorioz, datorren saiorako uzten da horien onarpena.

**2. Herrigintza arloaren kudeaketa-txostena.**

**1. Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.**

Debido a la modificación del sistema informático de audioactas, ha habido problemas técnicos para tener disponibles las dos actas de anteriores comisiones. Por ello, no ha sido posible poner dichas actas a disposición de las personas miembro de la comisión. En consecuencia, se deja su aprobación para la próxima sesión.

**2. Informe de gestión del Área de Ciudadanía.**



Iraileko kudeaketa-txostena aurkeztu da, eta ez da horri buruzko galderarik egon.

Se presenta el informe de gestión de septiembre. No hay preguntas al respecto.

### 3. Gazteria eta Kirola: Durango Babesgunea.

Arloko teknikariak 2024an abiatutako Durango Babesgunea egitasmoaren berri eman du. Horretarako, azalpen-txostena jarri du batzordeko kideen esku. Dokumentuak honako atalak jasotzen ditu:

- Aurkezpena
- Zer da adingabeentzako espazio seguru bat?
- Enpresa esleipenduna: Kunina Sport (Iñaki Alonso)
- 2025-2026 ikasturtearen planifikazioa
- Lizitazioa 2026

Arloko teknikariak bere azalpena amaitu duenean, ondorengo galderak egin dizkiote:

1. EH Bilduko Juan Antonio Bueno zinegotziak galdetu du ea nortzuek osatzen duten Durango Babesguneko talde eragilea.

Arloko teknikariak erantzun dio kirol-elkarte bakoitzeko ordezkari banak eta udal-kirol teknikariak berak osatzen dutela talde eragilea.

2. Herritarren Eskubideak taldeko Jorge Varela zinegotziak galdetu du ea zelan bidera daitekeen kirol-talde bakoitzeko Babesgune egitasmoko ordezkariak bete beharreko funtzioak kirol-talde horren ekitaldi guztietara hedatzea. Izan ere, ordezkari hori ezin daiteke ekitaldi horietan guztietan egon. Horrez gain, proposatu du ordezkari bat baino gehiago egon beharko litzatekela.

Arloko teknikariak azaldu du kirol-elkarte bakoitzak lanketa berezia egin behar duela, ordezkariak berak

### 3. Juventud y Deporte: Durango Babesgunea.

El técnico del área informa del proyecto Durango Babesgunea que se puso en marcha en 2024. Para ello, pone a disposición de las personas miembro de la comisión un informe explicativo. El documento recoge los siguientes apartados:

- Presentación
- ¿Qué es un espacio seguro para menores?
- Empresa adjudicataria: Kunina Sport (Iñaki Alonso)
- Planificación del curso 2025-2026
- Licitación 2026


Una vez que el técnico del área ha finalizado su exposición, le formulan las siguientes preguntas:

1. El concejal de EH Bildu, Juan Antonio Bueno, pregunta quiénes forman el grupo motor de Durango Babesgunea.

El Técnico del área le responde que el grupo motor está formado por una persona representante de cada asociación deportiva y el propio Técnico Deportivo Municipal.

2. El Concejal de Herritarren Eskubideak, Jorge Varela, pregunta cómo se garantiza que las funciones a realizar por la persona delegada dentro del proyecto Babesgunea de cada equipo deportivo se extienden a todos los eventos de dicho grupo deportivo, ya que no es posible que esta persona pueda estar presente en todos esos actos. Además, propone que debería de haber más de una persona dedicada a llevar a cabo dicha labor.

El técnico del área explica que cada asociación deportiva tiene que realizar una importante labor, guiada por la propia persona delegada, para que todos



# DURANGO

## Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza  
Secretaría

gidatuta, Durango Babesguneko irizpide horiek guztiak kirol-elkarteko ekosistema osatzen duten kide guztiek ezagut eta barnera ditzaten.

Horren ostean, elkarrizketa egon da gaiaren inguruan eta alderdi politiko guztiek hartu dute parte. Oro har, adostasun handia izan da gaiaren inguruan eta oso ondo baloratu da egitasmoa. Honakoak azpimarratu dira:

- Prestakuntzaren beharra.
- Kontzientzia pizteko premia.
- Irizpideak egoki zabaltzeko beharra.
- Tresna eta protokoloen beharra.

3. Alderdi Popularreko Carlos Garcia zinegotziak galdetu du ea beste udal batzuek ere martxan dituzten halako programak.

Arloko teknikariaren erantzuna baiezkoa izan da. Horrez gain, aipatu du Bizkaiko Foru Aldundiak ere bat egiten duela tankera horretako egitasmoekin, eta bere zerbitzu propioa ere baduela.

#### 4. Berdintasuna: Berdintasun Planaren jarraipena.

Arloko teknikariak Berdintasun Planaren jarraipenaren berri eman du, eta 2025erako Berdintasun Kontseiluan adostutako lehentasunen betetze-mailari buruzko azalpenak eman ditu. Horretarako, azalpen-txostena jarri du batzordeko kideen esku.

#### 5. Euskara: euskara beken ebazpena.

Arloko teknikariak euskara beken ebazpenaren berri eman du.

estos criterios de Durango Babesgunea sean conocidos e interiorizados por cada persona miembro del ecosistema de la agrupación deportiva.

Tras ello, se ha abierto el diálogo sobre el tema, donde han participado todos los grupos políticos. En general, ha habido un gran consenso y se ha valorado muy bien el proyecto. Se destacan los siguientes puntos:

- Necesidad de formación.
- Necesidad de despertar la conciencia sobre el tema.
- Necesidad de una adecuada difusión de los criterios.
- Necesidad de herramientas y protocolos.

3. El concejal del Partido Popular, Carlos García, pregunta si otros ayuntamientos también tienen en marcha este tipo de programas.


La respuesta del técnico de área ha sido afirmativa. Además, señala que la Diputación Foral de Bizkaia también se suma a este tipo de proyectos y cuenta con su propio servicio.

#### 4. Igualdad: Seguimiento del Plan de Igualdad.

La técnica del área da cuenta del seguimiento del Plan de Igualdad y explica el grado de cumplimiento de las prioridades acordadas en el Consejo de Igualdad 2025. Para ello, pone a disposición de las personas miembro de la comisión un informe explicativo.

#### 5. Euskera: resolución de las becas del Área de Euskera.

La técnica del área informa de la resolución de las becas de euskera.



## 6. Beste gai batzuk

- Enplegu Plana: Lanbidek baiezkua eman dio aurkeztutako Enplegu Planari eta kontrataziotarako dirulaguntzei.
- Andraguneko eta adinekoentzako ikastaroetako parte-hartze arrakastatsuari buruzko datuak eman dira.
- Sanfaustoak. Jaiei buruzko balorazio orokorra egin da.

## 7. Galde eskaerak

- Euskara Arloko teknikariak 2025eko Euskaraldian egindako diru-gastuei buruzko datuak eman ditu, aurreko batzordean EH Bildu taldeko Ane Abanzabalegi zinegotziak egindako galderari erantzunez.
- EH Bildu taldeko Juan Antonio Bueno zinegotziak galdetu du ea zenbatekoa izan zen Montevideorekiko senidetze-ospakizunen ondorioz gastatutakoa. Datu zehatzen berri emango zaio albait arinen.

Deialdiko gai-zerrenda amaitu ondoren, presidenteak bukatutzat eman du bilkura. Akta hau idatzi da eta nik, idazkariak, fede ematen dut.

## 6. Otros asuntos de interés

- Plan de Empleo: Lanbide ha aceptado el Plan de Empleo presentado y las subvenciones a la contratación.
- Se aportan datos sobre la participación exitosa en los cursos de Andragune y para personas mayores.
- Sanfaustos. Se hace una valoración general de las fiestas.

## 7. Ruegos y preguntas

- La técnica del Área de Euskera da los datos sobre los gastos económicos realizados en el Euskaraldia 2025, en respuesta a la pregunta formulada por la concejala del grupo EH Bildu, Ane Abanzabalegi, en la anterior comisión.
- El concejal del grupo EH Bildu, Juan Antonio Bueno, pregunta a cuánto ascendió el gasto derivado de las celebraciones de hermanamiento con Montevideo. Se le informará de los datos concretos a la mayor brevedad posible.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretaria doy fe.